

# Hezkuntza ondarearekiko hurbilketa

(Approximation to the heritage of education)

Perez de Urraza, Kepa  
Univ. del País Vasco  
Escuela Universitaria de Magisterio de Bilbao  
Dpto. Didáctica y Organización Escolar  
Ramón y Cajal, 72  
48014 Bilbao

---

*Hezkuntza ondarea euskal kulturaren atala da (Euskal Kultur ondareari buruzko 7/1900 Legea). Euskal Eskola Museo proiektuaren xedea euskal hezkuntza sortzaileak historian zehar egindako ekarpena ezagutaraztea da eta baliagarri izatea du helburu, hezkuntza-sistema propioa inoiz lortu ez duen nazio ikuspegi batek ari garela ahaztu gabe eta egoera horrek dakarren gatazka eta erantzun soziala kontutan harturik. Berreskuraturiko hezkuntza altxorrean XX. mendean zehar ikasle izan zirenen fotohistoria eta XIX-XX. mendetako eskola materiala nabarmentzen dira. Azkenik, arbel eta pupitrez dihardu artikulua (etimologia, funtzioa, motak...).*

*Giltza-Hitzak: Hezkuntza ondarea. Euskal kultura ondarea. Hezkuntza museoa. Euskal Eskola Museoa. Fotohistoria. Eskola materialen lerrokapena. Arbel. Pupitrea.*

*El patrimonio de la enseñanza es parte de la cultura vasca (Ley 7/1900 del Patrimonio Cultural Vasco). El proyecto de Museo de la Escuela Vasca surgió con el fin de dar a conocer la aportación de la enseñanza vasca a lo largo del tiempo, sin olvidar que se trata de un pueblo que nunca tuvo un sistema de enseñanza propio, con los consiguientes enfrentamientos y conflictos sociales. Del patrimonio educativo recuperado destaca la historia fotográfica de los estudiantes desde comienzos del siglo XX y el material escolar los siglos XIX y XX, basado en diferentes listados. Finalmente, el artículo trata de las pizarras y pupitres escolares (etimología, función, tipos...).*

*Palabras Clave: Patrimonio de la enseñanza. Patrimonio cultural vasco. Museo de la enseñanza. Museo de la Escuela Vasca. Historia fotográfica. Listado de material escolar. Pizarra. Pupitre.*

*Le patrimoine de l'enseignement fait partie de la culture basque (Loi 7/1900 du Patrimoine Culturel Basque). Le projet de Musée de l'École Basque est apparu afin de faire connaître l'apport de l'enseignement basque au cours du temps, sans oublier qu'il s'agit d'un peuple qui n'a jamais eu de système d'enseignement propre, avec les affrontements et les conflits sociaux qui s'ensuivent. Du patrimoine éducatif récupéré on remarque l'histoire photographique des étudiants depuis le début du XX<sup>e</sup> siècle et le matériel scolaire des XIX<sup>e</sup> et XX<sup>e</sup> siècles, sur la base de différentes listes. Finalement, l'article traite des ardoises et des pupitres scolaires (étymologie, fonction, types...).*

*Mots Clés: Patrimoine de l'enseignement. Patrimoine culturel basque. Musée de l'enseignement. Musée de l'École Basque. Histoire photographique. Liste de matériel scolaire. Ardoise. Pupitre.*

XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques = Basque science and culture, and telematic networks (15. 2001. Donostia). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2002. - P 45-52. - ISBN: 84-8419-949-5.

## 1. HEZKUNTZA ONDAREA ETA HEZKUNTZA MUSEOA

Hezkuntza ondareaz hitzegiterakoan ezin dugu ekin Euskal Kultur Ondareari buruzko 7/1900 Legeak bere sarreran dioena: “Euskal kultur ondarea da Euskal Herriaren nortasun-adierazgarri nagusia eta herri honek mundu osoko kulturari kondairan zehar eman diotenaren erakusgarri garrantzitsuena. Kultur ondare honen jabe Euskal Herria da” (E.H.A.A. 1990ko Abuztuak 6).

Euskal kultura osatzen duen ataletariko bat, oraintsu arte agian gutxietua, eskola ondarea da. Honen bidez, kultura unibertsala aberastuz euskal hezkuntza sortzaileak historian zehar produzitu duen ekarpena ezagutu, berreskuratu eta publikoaren gozamen eta interakziorako erabilgarri izatea du helburu. Hauxe da Hezkuntza Sailak eta Eusko Ikaskuntzak bultzaturik, jadanik abian dagoen Euskal Eskola Museo proiektuaren xedea.

Erakusketa prefabrikatuen eta kulturaren merkantilizazioaren aurrean, ondareaz eta museogintzaz ari garelarik, kontutan hartzekoak dira Alonso Fernández adituak ondarearen kontzientzia kolektiboaren esnaketaz dioskuna (1995, 124). Euskal Herrian gauzatu den hezkuntza ondarea, historikoki garatutako gizarte-egitura arrotzen menpe egonik, zapalkuntzaren aurrean erresistentzia duen esanahi identitarioa da ikertu eta aditzera eman behar duguna. Gure egungo mundua, globalizazio eta identitatearen arteko erlazio ez errezean erakitzen ari dela dio M. Castellsek (2001, 27), eta gehiago zehaztuz, “aberastasun, botere eta irudien flujo globalen munduan, identitatearen bilaketa, kolektiboa zein individuala, erantsia zein eraikia, esanahi sozialaren oinarritzko iturri bihurtzen da” (2001, 33).

Hezkuntza ondarearen garrantziaz jabeturik, ez da erreza hezkuntza-sistema propioa izateko botere politiko nahikorik ez duen nazio ikuspegitik, Euskal Eskola Museoak horri egin diezaikkeen ekarpen akademikoa azaltzea. Testuinguru honetan, euskal hezkuntza ondare eta eskola museoarako egokitzat jotzen ditugu P. Iztueta irakaslearen hausnarketak, “euskal hezkuntzaren bilakaera planteatzeko orduan, euskal arazoa, aldi berean, ez bakarrik klase ikuspegitik, nazio eta hizkuntzaren aldetik ere planteatu beharra dago, baldin eta arazoa bere espezifikotasun osoan aztertu nahi bada” (2000, 75), izan ere, soziologo horrentzat, “estatu-boteretik gabe, ez da posible hezkuntza-sistema nazionalik sortzea eta” (2000, 195).

Horrekin lotua, Euskal Eskola Museoak gure herriko hezkuntza ondare identitarioaz ikertzerakoan, logika estatalista zein teknokratikoaz gain, diskurtsu askatzaileantzat abiatu beharko luke bere eginkizuna, eta hau zentzu bitan: batetik, sozialki beharrezko den ezagutzaz komunitatearen partaide-tza bultzatuz, eta bestetik, eskolaren bidez Espaniako errepublika eta frankismoa jasan zuten euskaldungoaren esanahi eta bizipen subjektiboak berreskuratuz.

Lehenengoari dagokionez, euskal hezkuntza ondareak isladatu beharko lituzke tokian tokiko zirkustantzia kritikoak, ezin baita ulertu euskal eskolaren dinamika inguruko baldintza egiturelek sortutako gatazka eta erantzun sozialik gabe. Eta beste herriek egiten duten bezela, Euskal Herriaren ikuspegitik egindako hezkuntzaren historia eta soziologiak argitasun handiagoa eskainiko liguke giza-komunitatearen kultura material eta euskal curriculumean sakontzeko. Gurean ere aplikagarri da curriculumaren teoriaz ari den Tadeu da Silvak dioena, “hura jakintza, identitate eta botere arazoa da” (2001, 184).

### Goitik hasita eta ezkerretik eskumaldera:

Jesus Unzueta Aurre. Mekola auzunea  
 Santi Azpiunza Alzola. Matzori baseria  
 Ambrosio Arregi Atutxa. Betzuen baseria  
 Juantxo Arregi Atutxa. Betzuen baseria  
 Silbestre Bikandi Belar. Zabale baseria  
 Feliziano Ormaetxe Olabeaga. Bernagoitia  
 Anastasio Bikandi Belar. Zabale baseria  
 Felipe Alkorta Inza. Goienengo auzunea  
 Ignazio Azueta Obieta. Mekola auzunea  
 Jose Bikandi Belar. Zabale baseria  
 Kostantino Inza Aldekoa. Osteko baseria  
 Genobeba Areitio Bikandi. Mekola auzunea  
 Margari Eriz Azkarraga. Eleizondo baseria  
 Inazia Alkorta Inza. Goienengo auzunea  
 M<sup>re</sup> Luisa Aizpuru. Zabale baserrian bizi zena  
 Julitxu Aizpuru. Zabale baserrian bizi zena

Sisili Inza Urkiza. Osteko baseria  
 Kristina Alzola Ereño. Matzori baseria  
 Isabel Mendiagarai Jaio. Betzuen baseria  
 Maximo Inza Urkiza. Osteko baseria  
 Genobeba Bediaga Solaegi. Mekola auzunea  
 Teresa Alzola Ereño. Matzori baseria  
 Juanita Erdoiza Alberdi. Bernabeiti auzunea  
 Kosme Astoreka Garamendi. Hornaondo baseria  
 Abelina Alzola Ereño. Matzori baseria  
 Asun Alzola Ereño. Matzori baseria  
 Antonia Alzola Ereño. Matzori baseria  
 Maxima Eriz Azkarraga. Eleizondo baseria  
 Matilde Bikandi Zamalloa? Zabale baseria  
 Manuel Eriz Azkarraga. Eleizondo baseria  
 Korona Alzola Ereño. Matzori baseria  
 Julia Bediaga Solaegi. Mekola auzunea

Frantziar eta espaniar hezkuntza-sistemek ezarritako baldintzen pean egon eta dagoen euskal eskola ondarea, ia galtzear aurkitu da. Eusko Ikaskuntzak agerturiko sentsibilitatearen bidez eta Hezkuntza Sailak emango dion babes ofizialari esker, posible izango du Euskal Eskola Museoak hainbat ikastegi publiko eta pribatutan dagoen hezkuntza altxor paregabea eta eskola materiala berreskuratzea eta zabaltzea, izan ere, eskoletan gordetzen den ondareak balio kultural eta zientifikoa handia baitu.

Bestetik, norbanakoa dago. Euskal Herriko ikastegi gehienetan atera izan diren eskolumeen argazkiek gordetzen duten hezkuntza altxorra gizabanakoaren mailan koka liteke. XX. mendearen hasera eta erdikaldeko ikasle izan zirenen fotohistoria guztiz aberatsa da, eta hezkuntza esparruan behintzat ikertzeke dago. J. M. Sarasuaren hitzetan, “Dirudienez, gure oroimena irudietan oinarritzen da. Noizbaiten gertatu zenaren argazkirik ez badugu, ezer gertatu ez zela iruditzen zaigu” (1997, 8).

Hori dela eta, aspaldian hasi gara, Bizkaiko Irakaslego Eskolako ikasleen bidez, Euskal Herriko hainbat ikastetxetako eskolumeen argazkiak biltzen eta identifikatzen. Horien bilduma, hezkuntza ondare ordaingaitza da eta Euskal Eskola Museo bere leku aproposa. Egun, Euskal Eskola Museoaren publizitatea egiteko erabiltzen dugun argazkia, I. Ojanguren argazkilariak ateratakoa, Bizkaiko Zornotzako Bernagoitiako auzoeskola da, 1925. urte ingurukoa, eta guztira, 32 neskamutil guztiz identifikaturik agertzen dira, blusa beltza eta guzti. Datu jasotzaileak Itziar Zearreta Baraia eta Agurtzane Juez Bikandi maistrak izan dira, informatzaileak Sisili Inza eta Fortunata Bediaga, eta laguntzaileak, Iñaki Larrea eta Oihana Etxanojauregi.

Bizkaiko Bernagoitiako auzoeskola. Gipuzkoako Agiritegi Orokorra. Ojanguren Artxiboa. 1925.

## 2. HEZKUNTZA ONDAREA ETA ESKOLA MATERIAL LERROKAPENAK

Euskal Eskola Museoarentzat garrantzizkoa da erreferentzia historikoez hornitzea. Guk aurkitu dugun hezkuntzari buruzko lehen aipamen dokumentatua, 1072. urtera garamatza, non Santxo Erregeak, Urraka alabaren hezkuntzaz arduratzearen truke, Larrasoango abadeari hiru

etzaleku (*cubilar*) ematen dizkio, “Ista donatio fuit facta in Nazera quando conmemdaui Sancuis rex predictus filiam suam nomine Vrraca domino Acenario abbati supradicto ut nutricere eam et ut faceret docere eam psalmos” (Martin Duque, 1983, 145).

Bestalde, Euskal Eskola Museoak XVII. mendean, loratutako euskal egileen ekarpenak ere kontutan hartu beharko ditu: J. Itziar eta Madariaga kaligrafoak, Leizarragak idatzitako lehen *abecea*, J. Huarte psikologia diferentzialaren sortzailea, I. Loiolak sortu zuen Jesus Aldundiaren *Ratio Studiorum* irakaskuntza-metodoa,...

Euskal Herriko Foru eta Udal Agiritegietan ugari dira XVIII. mendetik hasita, gordeak dauden eskola materialez egindako lerrokapenak. Esaterako, 1733. urtean, Franzisko Renteriak Bakio herrian sortutako eskolak, 1768ean honoko objektuen zerrenda zuen:

Primeramente, cinco resmas de papel,	
ochenta y seis reales de vellon .....	86
Ytem, quatro mazos de plumas,	
doce reales .....	12
Ytem, cinco azumbres de tinta,	
veinte y quatro reales .....	24
Ytem, seis catones,	
doce reales de vellon .....	12
Ytem, tres docenas de cartillas,	
treinta reales de vellon .....	30
	164

Importa toda la cuenta ciento y sesenta y quatro relaes y juramos ser cierta y consentimos que su importe se entregue a D. Juan Mariano de Olabarrieta, Maestro de primeras letras de dicha escuela de niños,..." (Bizkaiko Korregimenduaren Artxiboa, 1768. urtea. 84/ 16, 45. Fól.).

Euskal hezkuntza museoak eskuratu, babestu, eta publikoaren gozamenarako jarri beharko lukeen eskola-objektuen artean, besteak beste, XIX. mendearen amaieran eta XX. mende haseran, euskal eskola guztiek burutzen zituzten material lerrokapenetatik atera daitezkeen objektuak dauzkagu. Ondorengo laukian 1880. urtean, Lekeitioko eskoletan zegoen material zerrenda agertzen zaigu (Azumendi J., 2001).

## 2.1. Lekeitioko Eskolako 1880ko material lerrokapena

Lerrokapenean agertzen den kontzeptua	Euskaraz
1 Crucifijo dorado encerrado en un cuadro 1 Un marco dorado destinado para el retrato de S. M. 1 Un reloj de pared	Kurtzea Errege markoa Erlojua
1 Un cuadro sinóptico de pesas y medidas, por Genaro Valle 2 Dos esferas, una terrestre y otra armilar 2 Dos cuadros de oraciones, de entrada y salida	Pisu eta neurriak Esferak Otoitz kartelak
1 Un termómetro 1 Un compás mayor para clarión 1 Un sillón para el profesor 1 Una mesa-escritorio para el mismo, con cuatro tiradores	Termometroa Konpasa Besaulkia Maisu-mahaia
2 Dos relojes métricos de valuaciones, por Alverá 21 Veinte y un cuadros de máximas morales 1 Una colección de mapas geográficos, por Dufour 9 Una colección de muestras grandes de escritura, por D. Jose Francisco de Iturzaeta 64 Cuadros con sus cristales para muestras de escritura	Erloju metrikoa Arau moralak Mapak Idazketa ereduak Idazketa ereduak
7 Siete encerados, uno mayor y seis menores e iguales 1 Un encerado con la cuadrícula y letras radicales 2 Dos tableros comunes para la aritmética y decimales y sistema métrico	Entzeratua Laukidun entzeratua Ohol arruntak
4 Cuatro tablas de las operaciones fundamentales de Aritmética 3 Tres marcos sin cristales 27 Una colección de carteles de lectura, por Flórez	Taulak Markoak Ormirudiak
14 Catorce marcos con sus cristales conteniendo igual número de láminas de Dibujo lineal 75 Setenta y cinco láminas de Historia Sagrada 18 Marcos con sus cristales para las láminas anteriores	
2 Dos tomos, <i>Curso metódico de dibujo lineal</i> , por Giró 2 Dos tomos, <i>Enseñanza intuitiva de H. Sagrada</i> , por Ralero 1 Un librito intitulado, <i>Colección evangélica</i> , por Retamero 1 De ejercicios para la <i>Escritura al dictado</i> , por Carlos Yeves 1 De "en rústica, <i>Consultor métrico y monetario</i> ", por Alverá 18 Dieciocho manuales de <i>Agricultura</i> , por Oliván 14 Catorce ejemplares <i>Evangelio para los niños</i> , por Terradillo	E. Selgas. Cudillero.
1 Una colección de sólidos o cuerpos geométricos con su caja 1 Un estuche de dibujo lineal	Gorputz geometrikoa Kutxatila
79 Setenta y nueve pizarras manuales 1 Una escribanía de bronce 57 Cincuenta y siete tinteros de plomo 1 Campanilla de bronce	Esku-arbela Eskribautontzia Tintontzia Txilina
1 Un libro de matrícula y clasificación 1 Un libro de asistencia 1 Un libro en blanco rayado 1 Un libro de visitas 1 Cuadro de distribución del tiempo y del trabajo, por Serrano	Matrikula liburua Asistentzia liburua Marradun liburua Ikuskaritza liburua Lana banatzeko taula
16 Dieciseis cuerpos de carpintería 10 Diez bancos separados	Ikasmahaiak Aulkiak
1 Un mapa de Vizcaya, muy usado	Bizkaiko mapa

## 2.2. Zenbait herri-eskoletako material lerrokapena

Ondoko laukian, aldiz, Sopela (1900), Lekeitio (1921) eta Hernaniko (1933) eskoletan zegoen objektu bilduma dozena bat atal ezberdinetan sailkatua ematen da, hurrenez hurren, E. Alvarez,

M. Robles eta L. Larretxea irakasleek jasoa. Ondoko arlo garrantzitsuenak hormetako dekorazioa, altzariak eta atal akademiko ezberdin eta ezagunak kontutan hartzen ditu. Material guzti honek ere hezkuntza ondare aberatsa suposatzen du.

Atalak	SOPELA, 1900 Nesken Eskola	LEKEITIO, 1921 Mutilen Eskola	HERNANI, 1933 Eskola graduatua
Maisu/ tra	Juliana Beaskoetxea	Basilio Esteban	—
Hormetan dagoena	1 Crucifijo 1 Imagen Purísima Concepc. 1 Bandera, escudo y palo 1 Reloj 1 Cuadro distribución de tiempo y trabajo 2 Cuadros de oraciones entrada y salida	1 Crucifijo con dosel terciopelo 1 Cuadro-retrato de S.M. Alfonso XIII 1 Una bandera nacional de percalina 1 Bandera de raso, con palo-hasta, para la fiesta del árbol 1 Reloj de pared parado 2 Cuadros de oración de entrada y salida 2 Cuadros de silencio y aplicación	5 Cuadros alegóricos a la República 2 Banderas Nacionales 2 Termómetros
Altzariak	1 Mesa-pupitre para la profesora 1 Escribanía de metal de la “ 6 Bancos con cajones de las niñas 8 Sillas. 5 de rejilla y 3 de paja 1 Armario para guardar objetos	6 Tableros de 1'33 cm <sup>2</sup> 1 Tablero de 60 cm <sup>2</sup> para niños pequeños 1 Mesa y sillón para el Profesor 1 Pupitre para la citada mesa 2 Sillas con asiento de madera 1 Escribanía de metal dorado, con dos depósitos, armazón madera y patas metálicas 16 Mesas de madera, 5 con cajas 16 Bancos de madera 2 Mesas semipersonales con bancos 1 Percha pequeña 2 Armarios con puertas vidrieras	26 Pizarras murales de pizarra natural con sus marcos 6 Tableros con sus trípodes 5 Estufas eléctricas 5 Mesas y sillas para los Profesores 5 Tinteros de cristal para los profesores 5 Armarios para material escolar 20 Mesas bipersonales planas 40 Sillas 110 Mesas bipersonales
Idatz-materiala	36 Tinteros 6 Cajas de puntas de varios n <sup>os</sup> 38 Mangos 1 Resma de papel blanco 1 Resma de papel n.º 5 1/2 Resmas de diferentes n <sup>os</sup> 1 Caja de greda	8 Pizarras de piedra 43 Tinteros de cinc 46 Portaplumas, cada una con su pluma 1 Caja de madera con divisiones, para colocar distintos portaplumas	56 Pizarras piedra y marco 50 Pizarras manuales 1 Maquinita afilalápices Además: reglitas, cartabones, semicírculos, lápices, gomas, cuadernos, papel para dibujo, etc.
Irakurketa- idazketa	30 Cuadernos de escritura 10 Muestras de escritura 12 Abecés, por Gabiria 14 Catones, por R. Arca 1 Colección de carteles	59 Muestras de caligrafía con sus marcos	
Hizkuntza	1 Gramática, por la R. A.	1 Diccionario de la Lengua Española	3 Diccionarios, por Raneés 1 Colección láminas “ <i>Pour faire parler nos petits</i> ”
Geografia- Historia	2 Mapas de Europa y de España	1 Esfera terrestre y otra armilar 8 Mapas grandes, Mundi, Asia, Africa, América, Oceanía, Europa, España ( físico) 5 Mapas de tela de una vara aproximada	2 Esferas terrestres Mapas: 3 Planisferios, 2 de Africa, 6 de España, 2 de Asia, 4 Europa, Oceanía, 5 Mapas de Geografía Astronómica

## 3. ESKOLA-ARBELA

Teknologia berrien garaian, gure eskoletan ohiko tresna izan den arbelak bete duen zeregina amaitzeaz gero ez dagoen ala ez eztabaidan sartu gabe, XIX-XX mendeetako eskola material lerokapen guztietan arbela oinarrizko tresna dela agertzen zaigu. Halaber, eskola-material banatzaileen katalogoetan arbela mota ezberdinei buruzko erreferentziarik ez da falta. Oraingoz, zail egiten da arbelik gabeko eskolarik irudikatzea.

## 3.1. Esanahia eta etimologia

Esanahia: “Ikasgeletan kleraz idazteko eta gaiak grafikoki azaltzeko egon ohi den taula edo ohol beltza” (Adorez-2, 1987, 24). Zenbait ikastegi-

tan harizko arbelak ikusiak ditugu. Arbelak, gaztelaraz hiru esanahi ditu: *pizarra*, *tableo* eta *encera-do*, eta frantseseraz *table noir*. Eskuz erabiltzen ziren arbeltxoei, euskaraz *idaztoholo* (Adorez-7, 1996, 611), gaztelaraz *pizarrita* eta frantseseraz, *ardoise*. Azkenik, idaztoholan markatzeko erabiltzen zen lapitza edo barra, aldameneko erdaratan, *pizarrin* edo *crayon d'ardoise* dira.

Etimologiari bagagozkio, gaztelarazko *pizarra* berbak, euskal jatorria duela diosku Corominasek, “palabra de origen vasco, pero su etimología precisa no es bien segura; quizá del vasco *lapitz-arri* ‘piedra de pizarra’, compuesto de *arri* ‘piedra’ y *lapitz* que ya significa ‘pizarra’ y viene probablemente del lat. LAPIDEUS ‘de piedra’, pétreo.” (1974, III, 811). Egile berak jatorrian sakonduz,

Atalak	SOPELA, 1900	LEKEITIO, 1921	HERNANI, 1933
Aritmetika-matematika	6 Tableros para sacar las cuentas 36 Tablas de sumar y restar	1 Tablero grande con su trípode para ejercicios de Aritmética, Geometría 3 Tablas grandes de Aritmética en lienzo con sus bastidores 1 Caja de cuerpos sólidos Geometría 1 Decalitro (medida) de madera 7 Medidas metálicas para líquidos del sistema métrico 2 Cuadros de Geometría, en bastidor 1 Compás para ejercicios Geometría	2 Semicírculos de madera 2 Compases 2 Reglas grandes 3 Cajas de sólidos geométricos 1 Balanza con sus pesas
Natur-zientziak			1 Vitrina conteniendo aparatos de Física y Química: máquina de vapor, aparato de proyecciones, brújula, aparato estereotipia, pila Grenet, retortas, frascos con sustancias variadas, bomba aspirante-impelente de cristal, imán, tubos de ensayo, 2 cartones explicativos del funcionamiento de una bomba y de una máquina de vapor, termómetro clínico,... 1 Mapa “El hombre”, de Fisiología 1 Mapa “ Los dientes”, de Fisiología
Etika edo morala		7 Cuadros de máximas morales, en tela, en forma de bastidores	
Erligioa	15 Catecismos, por Fleury 50 Doctrinarios, por el P. Astete	25 Cuadros de madera con cristal, con láminas de Historia Sagrada 36 Láminas de Historia Sagrada en papel y sin marco 2 Tomos de Historia Sagrada para consulta del Maestro	
Garbiketa-Osasuna		1 Plumero seminuevo 1 Cepillo para limpiar pared y techos	1 Pequeño botiquín de medicinas, vendas, gasas, etc. 3 Cuadros de alcoholismo, 1 de viruela, 1 de tuberculosis
Liburuak	20 Cartillas de vascuence del Cura Lodi 12 Títulos de libros de una media de 20 ejemplares	220 libros de lectura, de distintos autores, en prosa, verso, manuscritos e impresos	53 Títulos de libros en una cantidad media de 20 a 50 ejemplares
Administratiboa	3 Libros de asistencia, matrícula y clasificación	1 Medalla de metal blanco con cordón de seda con su estuche	1 Máquina escribir marca A.E.G.

zera argitzen du: “pero todavía en más probable un compuesto *lapitz-ari*, puesto que también se dice en cast. *pedra de pizarra*,... de ahí en romance \**lapizarra*, cuya primera sílaba se eliminaría al tomarla por artículo” (1974, III, 812).

Arbelaren ordeaz, gaztelerazko *tablero* hitza adierazteko taula erabiltzen badugu, Corominasek latinera TABULA hitzetik datorrela diosku, “del lat. TABULA ‘tabla, pieza de madera plana, más larga que ancha muy poco gruesa’, ‘tablero de juego’, ‘tableta de escribir’, etc.” (1974, IV, 327). Bestalde, hule ezkoztatuaz, *encerado* hitzaz, zera dio Espasa hiztegiak: “cuadro de hule [encerado] o lienzo barnizado, madera u otra substancia apropiada, que se usa en las escuelas para escribir o dibujar en él con clarión y poder borrar con facilidad” (1988, 471).

### 3.2. Arbelaren ezaugarriak eta funtzio didaktikoa

Egun, arbelaren erabilera ohikotzat jotzen da irakaskuntzaren maila eta ziklo guztietan. Eta maisu-maistren artean, hain erabilera arrunta duen tresna izanik, bitxia da Irakasleko Eskoletan arbelak duen aukera didaktikoz ezer ere irakastea. Esanahiarekin lotua arbelaren funtzioa agertzen zaigu, bereziki, irakaslearen ahozko mezuaren osagarria izatea. Arbelaren elementu didaktiko unibertsaia, ekonomikoa eta erabilterreza da. Hainbat eskoletan arbel handi bat ikasgelaren aurrealdean oholatza gainean kokatzen zen, eta tamaina txikiagoak beriz, aldamenetan. Eskola unitarioetan arbel multzo hau proposa izaten zen, maisu-maistrak azpialde bakoitzari ariketa egokituak prestatzeko. Hortik datorkio arbelari berezko funtzioa: ikasle talde baten aurrean maisu-maistrak, “testua, eskemak, irudiak” (Rodríguez Diéguez, 1972, 357) azaltzeko oinarritzeko tresna izatea.

Didaktika liburuetan ugari dira arbelaren ezaugarriez eta funtzioez idatziriko hausnarketa artikulak. Horietan sakondu nahia duenak badu bibliografia nahikorik. Navarro Higuera (1973), Néri-ci (1973), Ferrández, Sarramona, Tarín (1978), Blázquez (1983),... Arbelaren erabilera didaktikoez egile horien ekarpenak kontutan hartuz, zera labur daiteke: irudien etengabeko iturria izatea, berehalako erabilgarritasuna, ia asignatura guztietarako baliagarria, irakasleak aurretiaz lana prestatzeko aukera edukitzea,...

### 3.3. Arbel motak

Euskal Herriko eskoletan historikoki erabilitako arbelak ugari dira, bai neurritz, formaz zein mekanismo ezberdinez osotuak. Ohiko sailkapena hau da:

1. Arbel finkoa ormari atxikia eta eskegia. Arbel finkoen artean, lapitzarritz, arbelaz eginikoak eta taulak dauzkagu.

2. Zurezko astotxo edo bastidorrez osotutako entzeratu eta taulak, eta hemen finkoak, eskailera

antzerako mailetan jarriak, eta azkenik, birakariak izan daitezke.

3. Hirugarrenez, arbel higikorren artean beriz, arruntena, astotxoan jartzen zen entzeratu birakaria edo bi aurpegitako taula izan ohi da. Beste mota higikorra, orman itxasitako markoetan, bi arbel gainjariak egotea eta horrela, hiru mekanismo ezberdin ezagutzen dira: bertikala edo gillotina, horizontala edo irristakorra eta, hegaladuna edo bisagren bidez eraikitako arbel sistema. Azkenik, arbel azalera gehiago izan asmoz, mekanismo mixtoak ere badira: astotxoan ezarritako gillotina sistema eta birakaria aldi berean.

Egun, garbiagoak omen diren beira arbel zuriak eta koloretako errotulagailuak aspaldiko lapitzarri beltz klasiko zein klarionaren lekua eta funtzioa ordezkatzeko ari dira. Hauek erabat desagertzen badira, edo desagertu bitartean, gure ikastegietan funtsezko hezkuntza ondare izan den arbelak, geure irudimenean zuri-beltzean marrazteko aukera ez dezagun gal.

## 4. PUPITREA

Eskoletan falta ezin den funtsezko altzaria. Urtetan zehar, hamaika urte jazarlekutzat hartu den altzari xume hau izen ezberdinez ezagutu izan da: harotz-gorputzak, ikasmahaiak eta aulkiak, mahai bipertsonalak, mahai-pupitre, ... Aipatutako 1768ko Bakioko eskolako dokumentu berean, umeen jazarlekuei buruz honoko erreferentzia agertzen zaigu: “Ytem, tres bancos para asientos de chicos, diez y ocho reales”. Edozein eskola-erakusketatan pupitre klasikoak agertzen den bakoitzean, harengana hurbildu eta, berenganako begirunea, maitasuna zein errefusa, eta agian, bertan jazarleak ezin izango dugu ekidin.

### 4.1. Esanahia eta etimologia

Esanahia: pupitre edo ikasmahia: “idazteko eta hometarako paper eta gainerako gauzak edukitzeko mahai aproposa” (Adorez-2, 1987, 220). Gazteleraz: “Mueble con tapa de madera, en forma de plano inclinado que se pone en la mesa para escribir sobre él y para guardar en su parte interior papeles y efectos de escritorio” (Enciclopedia Espasa, 662). Frantseseraz: “Petit meuble à plan incliné, avec ou sans pied, pour poser des livres, des cahiers de musique, etc.” (Petit Larousse, 1977, 841).

Euskarazko idazmahai edo pupitre berbearen etimologiaz zera esan liteke: latinera *pulpitum*-i, hitzatik datorrela, “La parte del teatro en que representan los actores, la escena”. “Tribuna, cátedra, tablado, estrado” (De Miguel, 1887, 765). Bi esanahi hauetatik, hau da, irakaslearen haserako egoitza fisikotik eta, altzari klasiko motatik, tintontzirako zulo eta guzti, ikaslearen eskola-erakleku ezagunena izatera pasatu da pupitrea.

#### 4.2. Pupitre motak eta garapena

XIX. mendetik gaurdaino, pupitrea etengabe aldatuz joan den altzaria da, eta egun, material, neurri eta itxura ezberdin ugari ezagutzen da. Hein handi batean, batetik, joera pedagogiko modernoak haren bilakaera baldintzatu egin du, irakaskuntza pasibo eta ikasleen menpeko lerrakuntzatik, hezkuntza aktibo, sozializatu eta askatzaileantze igaroz, eta bestetik, ikaslearen gorputz jarrerak kontutan hartuz, akats fisikoak ekidin nahiean, geroz eta pupitre ergonomikoagoak asmatu egin dira.

Azken honekin lotua, XIX-XX. mendeen arteko mugan garatutako jarraera higienisten harian, ikasgela berean, umeen garaiera ezberdinetarako egokitutako pupitreak edukitzea gomendatzen zen, edo bestela, Madrilko Museo Pedagogikoak asmatutako ereduak eskaintzen zituen mahiaren elementuek modulagarriak izatea. Edozein modutan, pupitre inguruko atal teknikoak zein higienista gehien landu izan zuena Suitzako pedagogia modernoa izan zen. Gurean ere bada, osasun arloko lanik, eskolako pupitreak sor lezakeen lepoko gaisoiez Edurne Goicoetxeak (1997) egindakoa hain zuzen ere.

Pupitrearen mahai eta aulkiaren arteko proportzioa ezagutzeko *distancia* deitutako inrizpide teknikoak dugu edo, mahaiaren beheko ertza eta aulkiaren aurreko ertzaren arteko tartea. Hiru tarte posibleen artean, gomendagarria negatiboa izatea da, hau da, mahai eta aulkiaren ertzak zerbait gainjarriak egotea. Materialari dagokionez, eta Suitzako ereduari jarraipena diren Gipuzkoako Gabiriako eskolan dauden ereduetan ikus daitekeenez, pupitre eraikuntzak zuzaz gain, burnia ere ezagutu du.

Euskal Herrian, pupitreak, banakatik hasita dozenaldi ikasle sartzetarako ezagutu dira. Banakoenak ikastegi erlijiosoetan zeuden, eta gehienontzat ohikoenak bipertsonalak izan dira. Egun, aurkitzeko zailenak badira ere, lau eta bosnakako pupitre zerbait ale interesgarri aurkitu ditugu, adibidez, launakako Arabako Lantenon eta Bizkaiko Sopuertan, eta bosnakakoa azkenik, Gallartako Las Calizas auzo eskolan.

#### BIBLIOGRAFIA

ADOREZ-2 (1987): *Euskarazko hiztegia*. Adorez. Bilbo.

ADOREZ-7 (1996): *Diccionario 3000 hiztegia*. Adorez. Bilbo.

AGUSTIN RUBIO T (1958): *Prácticas de enseñanza. Curso 1º*. Magisterio Español. Madrid.

ALONSO FERNANDEZ L (1995): *Museología. Introducción a la teoría y práctica del museo*. Istmo. Madrid.

AYMTO. BILBAO (1933): *Servicios escolares de la Villa*. Casa de Misericordia. Bilbao.

BLAZQUEZ ENTONADO F,... (1983): "La imagen como recurso didáctico", in *Didáctica General*. Anaya. Madrid. 388-415.

BAUDIN H (1907): "Mobilier et matériel", in: *Les constructions scolaires en Suisse*. W. Kündig & Fils. Genève.

CASTELLS M (2001). *La era de la información. Vol. 1. La sociedad red*. Alianza Editorial. Madrid.

COROMINAS J. (1974): *Diccionario crítico etimológico de la lengua castellana*. Gredos. Madrid. 6 tomo.

DE MIGUEL R. (1887): *Nuevo diccionario latino-español etimológico*. Ag. Jubera. Madrid.

ESPASA: *Enciclopedia Universal Ilustrada Europeo Americana*. Hijos de J. Espasa Editores. Barcelona.

FERNANDEZ A, SARRAMONA J, TARIN L (1978): *Tecnología Didáctica. Teoría y práctica de la programación escolar*. Ceac. Barcelona.

GOIKOEIXEA E (1997): "El pupitre escolar", *Comunidad Educativa*, nº 237. Madrid. 6-10.

IZARRA KULTUR ELKARTEA (1997): *Elgoibar, erretratu zaharrak*. Elgoibarko Udala.

IZTUETA P (2000): *Hezkuntza, hizkuntza eta boterea Euskal Herrian*. Utriusque Vasconiae. Donostia.

LAROUSSE (1977): *Petit Larousse illustré*. Librairie Larousse. Paris.

MARTIN DUQUE A (1983): *Documentación medieval de Leire (Siglos IX al XII)*. Diputación Foral de Navarra. Pamplona.

NAVARRO HIGUERA J. (1973): "Instrumentos didácticos tradicionales", in MAILLO A (Dir): *Enciclopedia de Didáctica Aplicada*. Labor Barcelona. Tomo I 611-625.

NERICI I. G. (1973): *Hacia una didáctica general dinámica*. Kapelusz. Buenos Aires.

RODRIGUEZ DIEGUEZ J.L (1972): "Instrumentos convencionales", *Reforma cualitativa de la Educación*. Sociedad Española de Pedagogía. Madrid. 351-361.

TADEU DA SILVA T (2001): *Espacios de identidad. Nuevas visiones sobre el curriculum*. Octaedro. Barcelona.

ZUFIA P (1930): *Las escuelas de barriada de Vizcaya*. Diputación Provincial de Vizcaya.